


# Gezurrak bildu, egia aurkitzeko



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**E**rroma, 1498. Giovanni Nanni (1437-1502) fraile dominikoak, Annius Viterbokoa ezizenez eza-gunagoak, *Antiquitatum variarum* izenburuko lan mardula argitaratu zuen, ordurarte ezezagunak ziren greziar eta erromatar egile klasikoen testuak jasota. Eta testu horiek ezezagunak ziren faltsuak zirelako, Nannik berak asmatu zituelako.

Errenazimendu betean, italiarrak ziren nagusi, baina kultura grekoerromatarra berpizteko ahalegin horretan, italiarrek ez zuten gustuko erromatarrek greziarrek baino askoz beranduago iritsi izana. Haiantzat, lehenago iristeagatik, greziar kultura sofistikuagoa zen eta eragin eta autoritate handiagoa ematen zion horrek, Nannik narratiba iraultzea erabaki zuen, eta horretarako, existitzen ez ziren frogak asmatu zituen.

Nanniren lanak “sekulako eragina izan zuen argitaratu zenetik XVIII. mendearen erdialdera arte”, Walter Stephens historialariaren esanetan, eta Anthony Graftonek zioenez, “Europako herrialde guztien lehen historiari perbertitu zituen”. Horren adibide da Suediako Hjalmar eta Hramerren saga apokrifoak, 690. urte inguruan Lucas Halpapek “berreskuratu” eta asmatu zuena. Hasieratik faltsua zela susmatu zuten, baina, esaterako, Carl Lund pseudohistorialariak testu hura baliatu zuten suediarrek antzinako greziarrek lotzeko.

## BIBLIOTHECA FICTIVA

Bi idatzi horien kopiak Johns Hopkins unibertsitateko (Baltimore, AEN) Bibliotheca Fictivan daude gaur egun. Faltsifikazio historiko eta literarioak biltzen dituen liburutegi berezi hori 22.000 dokumentuz osatuta dago. Aipatutakoez gain, bilduma horretan daude, esterako: Jesu Kristok berak zerutik bidalitako gutuna, atsedean eguna larunbatetik igandera aldatzea justifikatzen duena, eta ziurtagiri modura Gabriel arkanjelua sinadura duena; Diktis



Jesu Kristok zerutik bidali omen zuen gutuna, atsedean eguna larunbatetik igandera aldatzea justifikatzen duena. Horrelako dokumentuak daude Johns Hopkins unibertsitateko Bibliotheca Fictivaren bilduman.

Kretakoak eta Dares Frigiakoak Troiako gerraren lekuko izanik idatziz jasotako kontakizun asmatuak, Homerok utzitako hutsuneak komeni bezala betetzen dituztenak; edo Publio Lentuno kontsulak, Judeako gobernadoreak, Erromako senatuari bidali omen zion gutuna, Erdi Aroan asmatua, Jesu Nazaretekoa fisikoki deskribatzen duena, hur koloreko hilea eta begi grisak zituela zioena...

Arthu eta Janet Freeman senar-emazteak 1961ean hasi ziren dokumentu horiek erosi eta bilduma berezia osatzen. Baina 50 urte geroago egokiena lan faltsu horiek guztiak ikerketa erakunde baten esku uztea zela erabaki zuten – eta bide batez, urte haietan xahututako dirua neurri batean berreskuratzea. Johns Hopkinsen irakasle eta kontserbatzaile Earle Havensek interesgarritzat jo zuen bilduma, baina unibertsitateko arduradunak konbentzitu behar zituzten gezur andanaren truke dirutza

gastatzeko. Freemandarrek ez zituzten soilik faltsifikazioak bildu; horiek gezurtatzeko egindako lanak ere jaso zituzten, eta hori erabili zuen Havensek dekanoren baiezkora lortzeko. “Egiaren bila ikertzen duen erakunde bat gara, eta horretarako ez diegu soilik guztiz egiazkoak diren gauzei begiratu behar. Egia ez diren gauzak ere ulertu behar ditugu: gezur horiek kulturak nola xurgatzen dituen, nola eragiten duten gure ideiak taxutzen, aurrejuzkuak nola sorrarazten dituzten...”

Unibertsitateak bilduma erosi eta Bibliotheca Fictiva zabaldu zuen 2011n. *Fake news* edo albiste faltsuak kontzeptua ez zen ia erabiltzen oraindik, gezurrezko dokumentuek ehunka urte izan arren. Gaur egun, katalogo bat osatu eta titulu guztiak online jarri berri dituzte, ahalmen kritikoari laguntzen dioten horrelako egitasmoak sekula baino beharrezkoagoak direnean. ●